

**PRAI BARTOLOME, XIX. MENDEKO  
ELIZEAREN KATEKESI EKINTZAN**

XIX. mendeko Elizearen katekesi ekintzan, **Aita Prai Bartolomer**en idazkiek dauken tokia azertu nahi dauan idazlan honen hasieran, Kalahorra-ko Katedraleko Artxiboan aurkitu neban eskuizkribu bat transkribitu nahi dot. Gaztelaniaz idatzita dago eta nahiko luzea da; baina, halan da guztiz ere, osorik eskeintzea iritzi deusot, bestelan esku artean izatea hain erreza ez dalako eta esaten diran gauzak nire ustez garantzitsuak diralako. Hona hemen:

*"Siendo una de las esenciales obligaciones de los Parrocos la explicacion de la Doctrina Christiana à sus feligreses, por derecho Natural y Divino, y estrechamente mandada por el S. Concilio de Trento, y ultimamente reencargada por Nuestras Sinodales, titulo 1º Constitucion 2ª y 3ª con las advertencias mas prudentes, sobre el modo, y medio, de cumplir con ella; Hemos juzgado preciso, en cumplimiento de Nuestro Ministerio Pastoral, recordarla como lo bacemos, à todos nuestros Parrocos, y señaladamente à algunos de ellos que son poco exactos o negligentes en su cumplimiento, con grande perjuicio de los Fieles, y enorme gravamen de sus propias conciencias.*

*Por tanto, mandamos à todos quantos exercen la Cura de Almas, que expliquen la Doctrina Christiana à sus Feligreses, à el Ofertorio de la Misa, todos los Domingos y Fiestas mas solemnes, y principales del año, ya baciendo de palabra por si mis-*

*mos, ó leyendo por alguno de los Catbecismos, en que con mas extension se halla explicada.*

*Y por lo que mira à las Parroquias de las Provincias Bascongadas, en que se usa su propio idioma, para las cuales no habia hasta ahora publicados tales Catbecismos, en atencion à que ya se ha socorrido esta falta, con no pequeño consuelo nuestro, habiendose publicado en nuestros dias, dos Obras impresas en lengua Basquenze, una en Bilbao, por el R.P.D. F. Pedro de Astarloa de la orden de San Francisco y otra en Irun, por el **R.P.F. Bartolomé de Santa Teresa, Carmelita Descalzo**, las cuales contienen Platicas Doctrinales, y Morales, en que se explican con nueva claridad y solidez las quatro partes de la Doctrina, acomodadas à el uso de los Parrocos, con cuyo auxilio quedan desvanecidas todas las excusas, que han podido alegar estos, para omitir dicha explicacion; por tanto encargamos, y ordenamos a todos, que procuren proveerse de alguna de dichas Obras, para que quando les falte tiempo, ó disposicion para tomarlas de memoria, las lean por el Libro à el Pueblo; pero con sentido, con claridad, y despacio; y quando alguna Platica fuese demasiado larga, la dividan en dos, para que de esta manera, no sea molesta à el Pueblo, y antes les sea mas provechosa, pues por esta razon encarga el S. Concilio de Trento, que las Platicas de los Parrocos en medio de la Misa, sean sencillas, claras y breves.*

*Y en atencion a que en muchas de esas Parroquias se parten las Familias, para asistir a Misa, enviando à la primera à los Hijos de familia, y Criados de servicio de la casa, y los demas acuden à la Misa Conventual, deseando que los primeros no queden siempre privados de oír la explicacion de la Doctrina, mandamos, que los Curas procuren hacerla alternativamente unos dias à la primera Misa, y otros a la segunda, y alabariamos mucho el zelo de los Parrocos, que lo quisiesen hacer en ambas, permitiendoselo su salud, y ocupaciones.*

*Nuestros Vicarios comunicaran esta nuestra Orden à todos los Curas de su Partido, velando sobre su exacto cumplimiento; dandonos parte de haberlo executado. Y no dudamos, que todos los Parrocos cumplan con tan sagrada, y estrecha obliga-*

*cion, y que tendremos el consuelo de saberlo asi por su medio. Logroño y Enero 8 de 1818.*

*Santa Visita de Logroño y Enero 8 de 1818.*

*Atanasio, Obispo de Calaborra y la Calzada”.*

Kalahorra-ko Gotzainak, idazki honetan, Trento-ko Kontzilioak Kristau Dotrinea irakasteari buruz hartutako erabakiak gogoratzen deuskuz; eta Kontzilioak Eliza osoari begira emondako aginduak bertarakotuz, Kalahorra-ko Sinodoetan emondako aginduak eta zehaztasunak ere eskeintzen ditu.

## **I. TRENTO-KO KONTZILIOA ETA KALAHORRAKO GOTZAINAK**

Trento-ko Kontzilioa (1545-1563) garrantzia haundikoa izan zan Elizearen historian. Urte batzuk lehenago, Luterogaz sortutako Protestantismoak eten haundia sortu eban Elizan. Kristinauen artean egoan fedeko egien ezjakintasunak eta moral jokabideetan agertzen zan nasaikeriak, bideak erreztu eutsezan kristau erlejino barriari. Horrez gainera, Protestantismoaren zabalkundearen Luterok argitaratutako “Dotrinak” izan eben eragina kontuan hartzen badogu, errezagotulertuko ditugu Trento-ko Kontzilioak hartutako erabakiak eta emondako irakatsiak.

### **“Erromako Katezismoa”**

Kristinatu asko ezjakin batzuk ziran erlejinoko gauzetan eta erreztu jausten ziran Protestantismoaren sareetan. Horregaitik, Trento-ko Kontzilioak, gotzain eta parroko edo arima-zain guztiei euren ardurapeko eliztararenei Jaungoikoaren Berbea eta Kristinatu Dotrinea azaldu eta irakasteko agindu astuna emon eutsen. Eta ez hori bakarrik. Eginkizun hori erreztetako eta fedeko egia azaltzerakoan Elizearen dotrinea hutsik barik eta bere osotasunean irakatsi ahal izateko, Kontzilioak Dotrina bat presatzeko agindua emon eban. Eta eliz batzar nagusia amaitu eta handik hiru urtera, 1566.an, Pio V. aita santuak argitara emon

eban "Catechismus ex decreto Concilii Tridentini ad Parochos", hau da, "Trento-ko Kontzilioaren aginduz egindako Katezismoa Parrokoentzat".

Trento-ko Dotrinea edo Erromako Katezismoa ez da umeak edo nagusiak buruz ikasteko liburutxo bat. Dotrina hau Parrokoentzat eta euren laguntzaile edo ordezkoeentzat egina dago. Bertan oinarrituta, domeka eta jai nagusietako meza nagusietan euren ardurapeko eliztarrei kristinau dotrinea irakatsi eta azaldu egioen. Eliztarrei irakatsi beharreko gauzak Trentoko Dotrineak lau atalburutan batzen ditu: Kredoan edo Apostoluen fede-bilduma, Sakramentuak, Aginduak eta Gure Aita.

Hurrengo hiru gizaldietan agertuko diran Dotrina gehienak eskema bera jarraituko dabe. Eta laburrean -buruz errezago ikasteko, itaun eta erantzunetan jarrita- edo era zabalagoan azalduta, Erromako Dotrinearen edukina eskeiniko dabe.

### ***Kalahorrako Gotzainak eta Kristinau Dotrinea***

Gorago aiatu dogun idazkian, Kalahorrako gotzainak, urteko domeka eta jai nagusi guztietan, Mezako eskeintza aldian, Kristinau Dotrinea euren eliztarrei irakasteko agindua emoten deutse Arima-zain guztiei. Eta agindu hau beteteko era bi aita-tzen ditu: bakotxak bere buruz berba eginda edo edo dotrinea azaltzen dauan Katezismoren bat irakurrita.

Baina agindu hau ez da gaurkoa. Gizaldi bi lehenago, 1620. urtean, Kalahorrako beste Gotzain batek -Don Pedro González de Castilok- bere ardurapeko elizearen egoerea ikusita, agindu bera emonda eukan. Hona hemen haren hitzak:

*"Que los Curas enseñen la Doctrina  
Christiana todos los Domingos, y dias de  
Fiesta, al tiempo del Ofertorio de  
la Misa Mayor.*

*Por quanto la Doctrina Christiana es el fundamento del  
Christiano, como está dicho, y sin la noticia clara, y distinta*

*de los principales mysterios de nuestra Santa Fè Catholica, que en ella se contienen, no se puede salvar ninguno, ni entrar por las puertas del cielo: y avemos ballado, por la visita que avemos hecho por nuestra persona en este nuestro Obispado, que ay falta notable de la enseñaça de la Doctrina Christiana, y que muchos de los Fieles, no solamente la ignoran, pero aun no saben persignarse.*

*Establecemos, ordenamos, y mandamos, que los Curas de este nuestro Obispado todos los Domingos, y dias de Fiesta, al tiempo del Ofertorio de la Missa Mayor, quando no buviere Sermón, enseñen la Doctrina Christiana à sus Feligreses: enseñandoles à persignar, y santiguar, y diziendo con ellos en alta voz las quatro Oraciones, y los Articulos de la Fe, y los Mandamientos de la Ley de Dios, y los Mandamientos de la Santa Madre Iglesia, y los siete Sacramentos; y esto no en latin, sino en lengua vulgar materna de cada vno, aunque sea Vazcongada, de manera que todos lo entiendan, y lo puedan aprender. Para lo qual tendrán los Curas una tabla, en que estèn escritas las dichas Oraciones, Articulos, Mandamientos, y Sacramentos; para que con mas facilidad, con la dicha tabla en la mano, à donde estará todo impresso de molde, lo puedan ir leyendo; y lo cumplan en virtud de santa obediencia, y sopena de dos reales, en que desde luego les damos por condenados, por cada vez que en esto faltaren, aplicados para la Fabrica...<sup>1</sup>*

XVII. gizaldiaren hasierako agiri honetan, itxura baten behintzat, Dotrinako gauzarik garrantzitsuenak laburrean buruz ikasteari eta ulertzeari nahiko irizten jako. Atanasio Gotzainak, ostera, gizaldi bi geroago, 1818. urteko gorago aita-tutako agirian, nahiz berbaz nahiz irakurriz, Dotrinea era luze-agoan azaldu beharra agertzen deusku.

<sup>1</sup> "Constituciones Synodales antiguas, y modernas del Obispado de Calaborra, y la Calzada. Reconocidas, reformadas y amentadas novísimamente por el Ilustrísimo Sor D. Pedro de Lepe Obispo deste Obispado, del Consejo de su Magestad, &c. En el Synodo Diocesano, que celebró en la Ciudad de Logroño, en el año de mil y seiscientos y noventa y ocho". Con privilegio. En Madrid. Por Antonio Gonzalez de Reyes. Año de 1700. Ikusi Constitucion II, 117. or.

**Beharrizan bateri erantzuten**

Eta beharrizan horri erantzun bat emotera datoz, hain zuzen, Gotzainak bere idazkian aitazten dituan Sermolari ospetsu bien -Aita Astarloaren eta Prai Bartolomeren- idazlanak.

Aita Pedro Astarloa, frantziskotarrak, 1816. urtean, Bilbon argitaratu eban bere lehenengo liburua.<sup>2</sup> Arima-zain euskaldunentzat eginda dago, baina, abadeen berbaldiak entzun eta gero kristinauak euren kontura irakurtzeko ere bai. Liburuaren lehenengo orrialdeetan, domeka bakotzeko ebanjelioen azalpen labur bat egiten dau. Eta gero, hogeitasei berbalditan bananduta, Erromako Dotrinearen lehenengo zati biak -Kredo eta Sakramentuak- azaltzen ditu. Ebanjelio txatal bakotxaren ondoren, ze berbaldi egin izentatzen dau. Bigarren liburua, urte bi geroago argitaratu eban, eta<sup>3</sup>, beste hogeitazazpi berbalditan, Erromako Katezismuaren hirugarren eta laugarren zatiak -Jaungoikoaren eta Elizearen Aginduak, eta Gure Aita eta beste oititz batzuk azaltzen ditu.

Gure Aita Prai Bartolomek ere, bere lehenengo liburua, 1816. urtean argitaratzen dau; Iruñean, eta ez Irunen (Gozainak dinoan lez)<sup>4</sup>. Eta bigarrena, 1817.ean<sup>5</sup>. Lehenengoan,

<sup>2</sup> **Urteco Domeca gustijetaraco Verbaldi Icasbidecuac**, ceizubetan azalduten dan **Erromaco Catecismua**. Eurretan aurquituco dabe Arimazain euscaldunac, euren Elextar, edo Feligresai predicadu biar deutzen Icasbidia: Baita bere Cristinau euscaldunac, cer jaquin, eta eguin biar dabeen. Componduba Aita Fr. Pedro Astarloa S. Franciscubaren seme, Lectore Jubiladu, Burgosco Provincijaco Aita, eta Cantabrijaco Defnidoriac. **Lenengo Liburuba**. Bilbon: Eusebio Larumbe Vizcaico Seniorjoco moldatzailemian 1816. Biar dirian escubidiacaz".

<sup>3</sup> **Urteco Domeca gustijetaraco...** eta Cantabrijaco Defnidoriac. **Bigarren Liburuba**. Bilbon: D. Pedro Apraiz-en moldateguijan. 1818. Biar dirian escubidiacaz".

<sup>4</sup> **Jaungoicoaren Amar Aguidubeetaco Ielengo bosteen Icasiquizunac**, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen Ortozeo Predicadoriac ateraac. **I. Zatiija**. Biar dan ondo izatiagaz. Iruñean: Rada Alargunaren Liburugullaan. 1816 Urtean".

<sup>5</sup> **Jaungoicuaren Amar Aguidubeetaco azqueneco bosteen Icasiquizunac**, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen

hogeitabost ikaskizunetan, Jaungoikoaren Legeko lehenengo bost aginduak azaltzen ditu. Eta, bigarrenean, beste hogeitasei ikaskizunetan, azkenengo bostak. Eta, handik urte bira, atara eban hirugarrena, beste hogeitamasei ikaskizunetan, Elizaren Sakramentuak azalduz <sup>6</sup>.

## II. AITA PRAI BARTOLOMEREN "ICASIQUIZUNAC"

Atanasio de Puyal y Poveda, Kalahorrako Gotzainak, 1818. urtarrilean bere agiria Logroñon idatzi ebanean, Aita Prai Bartolomek lehenengo liburu biak bakarrik eukazan argitaratuak. Eta ziurrasko, Aita Astarloak ere lehenengoa bakarrik izango eban argitaratua. Dana dala, Prai Bartolomek izan eban Gotzainak abadeei egindako idazkiaren barri. Ze irugarren liburua Gotzainari berari eskeintzen deutso, eta bere esker ona agertuz gainera, go-ralpen haundiak egiten deutsoz. Hona hemen bere hitzak:

*"AL ILUSTRISIMO SEÑOR D. D. Atanasio de Puyal, y Poveda, Obispo de Calahorra y la Calzada, del Consejo de S. M. Señor de Arnedillo...*

*ILUSTRISIMO SEÑOR.*

*Es mas que justo que yo el menor de sus reconectdos Capellanes consagre à V.S.I. Cabeza visible de esta grande Diócesi las platicas catequisticas en el idioma bascongado sobre los siete Sacramentos de la Santa Madre Iglesia. Habiendo pues dedicado las del Decálogo al V. Clero del Pais bascongado; en cuya gracia se dieron à luz, y merecido particular atencion de él; y de V.S.I. aquellas [Ordenó S.I. por una carta circular, que los Señores Curas bascongados de su Obispado leiesen del pulpito al pueblo las platicas del Autor...], con la mas rendida sumision, y sincero reconocimiento presento estas à V.S.I. seguro, de que la pastoral sombra de V.S.I. les sobrará,*

*Ortoceco Predicadoriac aterac. II. Zatiija. Biar dan ondo izatiagaz. Iruñean: Rada Alargunaren Liburuguillaan. 1817 Urtean".*

<sup>6</sup> *"Elsaco Zazpi Sacramentuben Icasiquizunac, Aita Prai Bartolome Santa Teresac Marquinaco Carmen ortoceco Prioriac ateraac. III. Zatiija. Biar dan ondo izatiagaz. Iruñean: Rada Alargunaren liburuguillaan. 1819 Urtean.*

*para que el público disimule sus defectos, y produzcan los frutos que de ellas se esperan..."*<sup>7</sup>.

"*Eusquera errijeetaco Eleisa-guizonai*" egiten deuten bere lehenengo liburuaren eskeintzan, Prai Bartolomek Euskalerrria eta euskaldunen entzute ona eta sinismen sakona goratzen ditu<sup>8</sup>, nahiz eta gero, Ikasikizunetan, euren akatsak eta hutsegiteak ere argi salatu.

Eta herriaren sinismen bizia eta sakona goratzean, eleiz-gizonen lan ederra txalotzen dau<sup>9</sup>. Eta, Ikasikizun honeek idaz-

<sup>7</sup> Ikusi "**Elisaco zazpi Sacramentuben...**", I-II orr.

<sup>8</sup> "*Eusquera-erri guztietan argui eguindau, ta eguttendau ceubeen Evangeljoco zelo egujazcuac, ta iracatsi garbijac, Erri zorjoneco onec badiara chito Entzute andicua, bai European, ta bai ezaututen dan mudu zabalian euren Jaqutirijaan, Legue guintzaan, Asmo-barrijeetan, Alcar-zaintzaan, Guerra-guintzaan, Sendotasunian, Irauntzalian, Odol nobltian, ta Verbaco izatian; Oraindiño argujaco, Icusgarrijago, ta entzunago dira, Ceruco Sinistue zucenian, Evangelijo Santuco esanian, Cristindadeco eracutsi garbijan, Eleisa Santiaren eguin biarreen osotasunian, arimeen onerico oitura jaquinac, ta ceruti jatsijac gordeetan...*

... *Euscal-erri jaso oneetan ezdau inos illunaren Aguintariac, sinistute gaituaren azija ereinda, pruturic artu. Ezdau gueure Erri idalgubebetan inos oinic gueratu, ez Judeguc, ez Moroc, ez Heregec, ez Jaungoico-bagacoc, ta ezda, entzute oneco ascoren erichian [Tert. apolog. c. 16. Maneño ibid.], Jaungoico-ascodunec bere. Munduco baztar guicbic contaucoc davee, aimbeste guiza alditan illun une bagaric, naastau bagaric, beti ziatz, beti zini-zoro, beti pirme, beti bardin, ta beti garbiro gorde daveela Jaungoico Bacarraren sinistute, ta ondra egujazcuac". Ikusi "**Jaungoicoaren Amar Aguidubeetaco lelengo bosteen Icasiquizunac**", III-IV. orr.*

<sup>9</sup> "*Nori zor deutsa bada Ezcaldumac, Cerubaz ostian, bardin bagaco dicha santa au, Cura Jaumaf, eta Eleisa-guizonai baino? Ceubec, Jaungoicoaren urreengo luurreco Otseguinac, zaintu, gorde, ta jasoten dozu cristindadeco eguin biar gracijazcuac Euscal-Errijeetan. Ceubec Jaungoicuaren verbiagaz janarija emoten deutzazu Jesu-Cristoren ardi aldra oni. Ceubec eracusten deutzazu, Jaungoicuari, lagunari, ta norberari zor deutzana. Ceubec alderatuten dozu osto deunguetati. Ceubec osatuten dozu, gaixotuten dana. Iracoiten dozu, jausten dana. Billatuten dozu, galduten dana. Aurrera tuten dozu, zutinic daguana. Ta, caridadiaren orjuagaz igortzita, vitzuta, postuta, cansaubagaric lagunduta, presteetan dituzu guztien arimaac, Ceruco Eche Santuban beti dichoso izateco". Ibidem, IV-V. orr.*



tean, Prai Bartolomek zer bilatzen dauan argi esaten deusku berak hasieratik:

*"Nire pozic andijeena izango lizaateque, Jaunac, ceubeen Eguin-biar altuban, jaungoicozcuan, ta pisutsuban celambit lagundutia"*<sup>10</sup>.

### **Pulpitotik Dotrinea irakasteko**

Aita Astarloak Erromako Dotrinearen lau zatien azalpena argitaratu eban bere liburu bietan. Prai Bartolomek ere asmo bardina eukan eta horretara bultz egiten eutsoen, antza danez, hainbat adiskidek. Bere lehenengo liburu biak argitaratu zituan aldian, Markinako karmeldarren komentuko sermolaria edo predikadoria zan eta herririk herri sermoiak egiten asko ibilia; horregaitik, ez da harritzekoa herrietako abadeek prediketako ikaskizun batzuk idatzi egizala eskatzea. Hona zer dinoskun berak, lehenengo liburuari "Iracurliari" izenpean, egiten deuston sarreran:

*"Icusiric, Iracurlia, zariana zariala, ezdaucazula ceure Eusqueeran, Pulpituan esateco, cer iracurriric, entero guichi baino, gogoratu jatan, cristinaubaren ERACUTSICO lau zati-jac pulpiloti esateco, edo prediqueetaco lcasiquizuneetan imini biar nitubala. Adisquide ascoc aurreratu navee, sail oni equitera. Esaten even, cbito asmo ona zala. Ta onera jaquinecuba Euscal Errijetaco Cura Jaun, ta Eleisa guizonentzat. Neuc bere (sinistu daiquezu, Iracurlia, badericbazu) ondo nerichon eguttiari, alizan ezquero...*

*Alan bere, asi bagaric ecer egulten ezdala, sintstuta, jarquinan, jaungoicoaren Amar Aguindubeen leleengo zatija, edo partia ogueta sei lcasiquizunetan arguitara ateratera. Au aintzat artuten badozu, Iracurlaac, laster ateraco da bigarren Zatiya. Baita aren ondoric Sacramentubac, Credua, ta Alta gueuria bere. Baita guero (cerubac lagunduten badeust) Jesu Cristoren, ta Ama Virginiaren gracijazco Jazuen ondraraco, Santubeen ondo Esaneraco, ta arimeen oitura oneraco*

<sup>10</sup> Ibidem, V. or.

*Sermoiac bere. Oneen guztion biarric gacheena eguinda daucat neure moduban...*"<sup>11</sup>

Jaungoikoaren Legeko Amar Aginduen eta Sakramentuen Ikasikizunak lau urteren barruan argitaratu zituen eta gugana heldu dira. Zer jazo zan **Creduaren** eta **Aita gureari** buruzko ikasikizunekin? Ze lanik gaxena eginda eukala dinosku egileak. Euren esku-izkribuak orain arte behintzat ez dira inon aurkitu.

### **XIX. gizaldian Bizkaian erabilten ziran Dotrinak**

Sarrera hitzotan, Prai Bartolomek era honetako liburuen hutsuna haundia dagoala dinosku: "*Icusiric... ezdaucazula ceure Eusqueeran, Pulpituan esateco, cer iracurriric, entero guicbi baino...*" XIX. gizaldiaren hasieran, euskerazko "Dotrina" asko ezagutzen eta erabilten ziran Euskalerrri osoan; bizkaieraz, gipuzkeraz eta Nafarroa eta Iparraldeko euskeran idatziak. Bizkaian erabilten ziranak bakarrik aitatuta, hor daukaguz:

\* 1731. urtean **Martin Arzadun**-ek argitaratu ebana<sup>12</sup>. 1815. eta 1819. urteetan egindako argitalpenak ezagutzen dira. Eta 1905.ean ere oraindik argitaratua izan zan.

\* 1762. urtean **Agustin Cardaberaz**-ek argitaratua<sup>13</sup>.

<sup>11</sup> Ikusi "**Icasiqizunac...**", lehenengo liburua, VI-VII. orr.

<sup>12</sup> **Doctrina Christianeen explicacinoa eusquera**, cein ofrecietandeušten euscaldum gustlai Don Martin de Arzadun Durangoco Vrico Elexataco Beneficiadu, da Cureac. Dedlquetandeuuso Don Nicolas de Echezarreta da Olasari Jaunari, Santiagoco Cavalleroari. Urte 1731. Imprimidia Vitoriaco Ciudadean Bartolome Riesgo, da Monteroen Imprentan".

<sup>13</sup> "JHS. **Doctrina Cristiana edo Cristiñau Dotriñea, bere Declaraciño laburragaz**: Itande, ta eranzuera gaz, Aita Astete ren Libruchoric aterea. Azquenean Arimen salvacionaco bear direan gauzaren batzuc. Gueta Cura Jaun, eta Escola Maisuai Jesusen Compañiaco Aita Agustin Cardaberaz ec ofrecietan, ta dediquetan deutse. [Iruñean, Libruguille Antonio Castilla-ren Ebean, 1762]".

\* 1763. urtean lehenengo aldiz eta, 1920. urtera bitartean, beste hogeitahiru aldiz gitxienez argitaratua eta Bizkaian oso erabilia izan dan **Bartolome Olaechearen** Doctrina<sup>14</sup>.

\* 1805. urtean, **Juan Antonio Moguel** Markinako Parrokoak egindako Doctrinearen laugarren argitalpena agertzen da<sup>15</sup>. Lehenengo argitalpena eta hurrengo biak noizkoak diran ez dakigu; nahiz eta Xabier Altzibar-en eritziz, 1783.ean Tolosan argitaratu zan Cardaberaz-en Doctrinan Moguel-en eskua argi-argi ikusi<sup>16</sup>, hortik ezin dogu gauza ziurtzat atara Moguelen Doctrina lez ezagutzen danaren lehenengo argitalpena ha izan zanik. Asteteren itzulpen honek berrogeitalau argitalpen gitxienez izan ditu, azkenengoa 1920. urtean egin; eta Aita Bartolomeren aldiari egindako hiru edo lau argitalpen ezagutzen dira: 1813, 1819, 1821... urteetan egindakoak. Eta Moguel-etzaz berba egiten gagozan une honetan, ezin ditugu aitatu barik itzi, haren beste katekesi lan bi, azken urteotara arte argitaratu barik egon diranak: "Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiana"<sup>17</sup> eta "El Catequista Bascongado / Cristau

<sup>14</sup> **Doctrina Cristiana**. D. Bartolome Olaechea Laucarizco Cureac bere Elesatean Jai Domeca guztietan expliquetan dauena leguez. Ofrecietan, eta dediquetan deuto D. Nicolas Antonio Landazuri, Laucarizco, eta Bilbao Elexetaco Beneficiadu, eta leen Begoñaco, eta orañ Jandone Cueco Cura Jaunari. Imprimiduda Vitorian beardirean licencia guztiacaz, Thomas Robles ta Navarro en etsean. [1763].

<sup>15</sup> **Cristinaubaren Jaquinvidia Aita Astetec erderaz egina**. Ceñetan aguertu, ta adierazoten dirian itaune, ta eranzutetan gueure Fedeco gauzaric biarrenac, Ifnieban Bizcaico Eusqueran, Don Juan Antonio Moguel, ta Urquiza, Marquinaco Curiac. Urteten dau laugarren biderrian. Biar dan leguez. Vitorijan: Don Fermín de Larumbe Liburu guillaren ecbian. 1805 garren urtian."

<sup>16</sup> XABIER ALTZIBAR: **"Bizkaierazko Idazle Klasikoak**. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: Nortasuna, Idazlanak, Grafiak". Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao, 1992. Ikusi 133. or.

<sup>17</sup> [JUAN ANTONIO MOGUEL TA URQUIZA]: **"Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiana"**. Edizio kritikoa, Fr. Luis Villasantek prestatua. Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Bilbao 1987.

Eracastle Euscalduna”<sup>18</sup>. Cristaubaren Ikasbidea, itaun-erantzunetan jarrita egon arren, ez da umeak buruz ikasteko egina, gorago aitatu dogun Asteteren dotrina laburra lez, nagusiak irakurteko eta dotrinea sakontzeko egindako liburu mardula baino; idazlan honen eskuizkribu bi ezagutzen dira (ez dira Moguelec bere eskuz idatziak), bata Derion aurkitzen da, Labayru Ikastegiko Euskal Bibliotekan<sup>19</sup> eta bestea Arantzazuko Bibliotekan<sup>20</sup>, “Cristau Eracastle Euscalduna”, barriz, Moguelen asmoetan, Kristau Dotrina guztia- ren azalpen sakon eta zabala zan, nahiz eta guganaino lan honen zati bat baino heldu ez. Gipuzkeraz idatzitako testu honen eskuizkribua Bizkaiko Foru Aldundiko Bibliotekan gordeten da<sup>21</sup>.

<sup>18</sup> JUAN ANTONIO MOGUEL: *“El Catequista Bascongado / Cristau Eracastle Euscalduna. Irugarren Zati edo Parte. Jangoicoaren Legue, ta Eleizaco Mandamentuen gañean. Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita. Labayru Ikastegia \* Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbao, 1994.*

<sup>19</sup> Derioko kodizearen lehenengo orrian hauxe irakurten dogu: *“Cristinaubaren Eracuspna edo Doctrina Christiania. Ceñian aguertu, ta adierazoten dirian astiro itaune, ta eranzunacas cristinaubaren eza- guerara eldu ezquero sinistu, escatu, eguin, ta artu biar ditubanac. Ataraten dau arguitara Vizcaico Euscaldunentzat gauza onen ganian onduen artu- bac, ta aguertuba izan dirian liburuetatit D. Juan Antonio Moguel ta Urquizac Marquinaco Urico Curiaç”.*

<sup>20</sup> Arantzazuko kodizearen lehenengo orrian beste hau irakurten dogu: *“Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Christiania. Nun aguertu, ta adie- razoten dirian itaune, ta eranzutetan gueure Fedeco gauzaric biarrenac, ta miragarrienac. Atera da gauza onen gañean onduen escribiu, ta jarduten daben Liburuetaric, ta opa deutse Vizcaico euscaldun guztiet euren Animen oneraco”.* (Moguelen izenik ez dau aitatzen).

<sup>21</sup> Foru Aldundian aurkitzen dan Moguelek bere eskuz idatzitako eskuizkri- buak izenburu hau dakar: *“El Catequista Bascongado (Lucerna pedibus meis Verbum tuum, et lumen semitis meis... Declaratio sermonum tuorum illuminat, et intellectum dat paruulis. Psalm. 118). Cristau Eracastle Euscalduna. Ceñec aguertu, ta adierazotzen dituen astiro Eracaste ascotan Cristauac sinistu, escatu, eguin, ta artu bear dituenac. Libru onetan eracas- ten da eguin bear duena ta eguin bear ez duena Jangoicoaren Legueco le- nengo bost Mandamentuetan. Ateratzen dy arguira Guiputz itzqueran chris- tau euscaldunen oneraco Don Juan Antonio Moguel, ta Urquiza:*

\* Eta aldi honetan bizkaieraz idatzitako dotrinen artean aita-tu beharreko beste bat **Busturiko Bikariako Dotrinea** deitzen jakona da <sup>22</sup>.

Gogoratu ditugun bost Dotrinok zabal ebizan Bizkaiko lurraldean Prai Bartolomeren denporan. Baina ez dira pulpitotik esateko eginak; buruz errezago ikasteko fede laburpen batzuk baino. Abadeen eginkizun honetarako gehiago balio izango eben Moguelen argitaratu bako idazlan biak; baina ez egoan hareekin kontatzerik.

Baina, gure Aita Bartolomek eta Aita Astarloak euren liburuak argitaratu zituenean, abade euskaldunen artean ezagunak eta erabiliak ziran Juan Antonio Moguel-ek berak eta Juan Bautista Aguirre-k Konfesio eta Komunioko sakramentuei buruz idatzitako liburuak <sup>23</sup>. 1808 urtean beste hainbat hitzaldi gertatuta eukazan J.B. Aguirrek abadeentzat, baina ez ziran ar-

---

*Marquinaco Cura, edo Anima-zaiac*". Eta beste hau gehitzen dau: "Iru-garren Zati edo Partea: Jangoicoaren Legue, ta Eleizaco Mandamentuen gañean".

<sup>22</sup> **Cristinau Dotrinea bere esplicacino laburragaz** itaune, ta eranzue-racaz Aita Asteteren Liburuchuti aterea Bizcaitar barrucuentzat. Azquenean iminten dira Arimen Salbaciñoraco bear, edo ondó direan gauzabatzuc. Vrteten dau arguira Busturico Vicariaco Abade Jaunen encarguz, ta costuz. Vitorian: D. Fermín Larumbe Liburuguillearen echean. 1802, urtean.

<sup>23</sup> **Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac** edo Cembat gauzac lagundu bear dien Confesio ta Comuniocari ondo eguinak izaiteco. Ateratzen du arguira Guiputz itzqueran Cristau euskaldunen oneraco Don Juan Antonio Moguel, ta Urutzac: Marquinaco Cura, edo Anima-zaiata. Bear bezela. Iruñeco Libruguille Ezquerreroem Alargunaren Echean; 1800. Urtean."

**Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac** lenbico Comunionoraco prestatu bear diran Aurrentzat eta bidez Cristau acientzat-ere bai. Esqueintzen diezte Euscaldunai D. Juan Bautista Aguirre; Asteasuco Beneficiadu, eta Guipuzcoaco Arciprestazco nagusian Diputadu generalac. Tolosan Iruñeco gure Apaiznagusiaren eta emengo Corregidorearen baimenarequin Don Francisco Lamaren moldizetegan 1803 urtean".

gitaratu 1850. urtera arte <sup>24</sup>. Eta beste horrenbeste esan behar da Jose Ignacio Guerrico Mutiloako abadeak, Dotriena azalduz, abadeentzat prestatu zituan platika edo sermoiei buruz <sup>25</sup>.

### **Prai Bartolomeren Icasiquizunac**

Prai Bartolomeren lehenengo liburuari, agertu zanean, oso harrera ona egin eutsen eliz-gizonak; halan dinosku berak bigarren liburuaren sarrera-hitzetan:

*"Bildurrezco ardura bategaz asi nevan cristinaubaren Icasiquizunac arguitara atarateco Saila. Baina dacastanian, I. T. ez daucazuzala ain comuntzat, aurreratu naz 2. aibat arinen zure escubetaraco prestatara... ezin ucatu negui, aparteco poza artu davena nire vijotzac, Eleisa gu(i)zonac ene neque pusquia ontzat emon daveenian"* <sup>26</sup>.

Batzuk, Ikasikizunok Domeketako ebanjelioagaz lotuta egoitea nahiago izango eben. Halan agertu eutsen, dirudienez.

<sup>24</sup> **Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan, zazpi Sacramentuen gañean Eracusaldiac.** Don Juan Bautista Aguirre Asteasuco Erretore, eta Guipuzcoaco Arciprestazgo Nagusian Diputadu generalac, Cristau aciai Meza nagusietan eguiñac. Esqueintzen diezte Apaiz Euscaldunai. (Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris. Isaiae C. 12.) Iruñeco gure Apaiz Nagusiaren baimenarequin. **Lenengo Liburua.** Tolosan: Andres Gorosabelen moldeteguiian 1850 garren urtean".

**Jaungoicoaren Legueco amar Aguinteen gañean Eracusaldiac.** Don Juan Bautista Aguirre... **Bigarren Liburua.** Tolosan: Andres Gorosabelen moldeteguiian 1850 garren urtean".

**Jesu-Cristo eta Virgiña cbil santaren misterioen, eta beste cembait gaucen gañean Eracusaldiac.** Don Juan Bautista Aguirre... **Irugarren Liburua.** Tolosan: Andres Gorosabelen moldeteguiian 1850 garren urtean".

<sup>25</sup> **Cristau Dotriña guziaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo dotriñetan partituric,** Don José Ignacio de Guerrico, Mutiloaco Beneficiadiuac eguiña. (Desolatione desolata est omnis terra: quia nullus est qui recogitet corde. Jerem. Cap 12, v. 11). Iruñeco Obispo Jaunaren baimenarequin. Tolosan. Mendizabalen alargunaren moldizteguiian 1858 garren urtean". (Hiru Liburu edo Tomotan Dotrinearen lau zatiak azaltzen ditu).

<sup>26</sup> **Jaungoicuaren amar Aguidubeetaco azqueneco bosteen Icasiquizunac... II. Zatiña**, I. or.

Baina Aita Bartolomek, nahiz eta hori ondo ikusi, hobeto eriz-ten deutso eta argi dauka bere lana Erromako Katezismoa azaltzea dala:

"Batzuc gura leuquee, **Icasiquizun** oneec urte barruco Domeequetaco evangeliuagaz catiatuta egotia. Ez dinot, gais-quiijago egongo litzaatequezala. Baina, ene ustez, ez leuquee onera guetjago euquico au gaiti. Erromaco Catecismua Cura jaunentzat, ta Eleisa guizonentzat cristinauben eracutsi osora-co eguin zan. Elisaco Batzaar, ta Jaquitun Nausijen ondo esa-terez jantzita, jasota dago, besteric ez eduban. Trentoco Batzaar Santubaren aguinduz urten euan arguitara. Baina orregaiti ez dago Catecismo aren eracutsija Domeequetaco evanjeliua-gaz lotuta. Bai, cristinaubac sinistu, eguin, escatu, ta artu biar daven guztia, arrigarrizco esaeriagaz, naustasunagaz, ta indarragaz eracutsita. Trentoco Batzaar santubac bere ez deutsee escatuten (Sess. 24 cap. 4. de Reform.) Eleisa guizo-nai, ta Cura Jaunai, nai, ta nai ezian Domeeca, ta jai andije-tan egun ataco evangelijua eracusteco; ez bada **Escritura Sagradubac, ta Jaungoicuaren Leguia, edo Jaun-goicuaren verbia** eracusteco. Beste Catecismo Nausijac bere ez dira lotuten domeeca, ta jai andijetaco evangeljuen sailla-gaz.

Cristinautzaco sinisquizunac, eguiquizunac, escaquizunac, ta artuquizunac dira Eleisa guizonen lelengo aracusquizu-nac, ta cristinauben icasiquizunac. Au izan da nire lana. Ez deuts(sic) eguno goguac emon, neure **Eracutsijac** oba euque-ela, urte barruco domeequetaco evangelijuaren verba, edo irago bategaz Bacocho catiatuta egotia..."<sup>27</sup>.

Sarrera-hitzok irakurri ondoren, Aita Bartolomeren asmoak argi dagoz: Erromako Katezismoaren bidetik, Kristinau Dotrinearen lau zatiak azaldu, abadeak pulpitotik esateko eran. Baina ez dagigun pentsau **Icasiquizunac** Trentotik sortu-tako Dotrinearen itzulpen bat diranik. Hango irakatsiak hartu eta bere erara moldatzen ditu, noiz-behinka aitamena zehatzak eginez.

<sup>27</sup> Ibidem, II-IV. orr.

Aita Bartolomek XIX. gizaldiaren lehenengo urteetan idazten ditu bere hitzaldiak: Aldi haretako arazoak eta beharrianak, orduko abade eta praile-ikastetxeetan ikasten zan Teologia... eta gaurkoak ez dira bardinak. Horregaitik, ez gaitu harritu behar bere lanetan agertzen dan "moralkeriak" (dana da "pekatu mortala"... "Jaungoikoaren zigorra"... "inpernuu"...); Sakramentuak azaltzean, gehien baten norberaren onerako grazia batzuk lez agertzeak, kristau-alkarteagaz dauken loturea ea aitatu ere egin barik...

Beste alde batetik, Teologia Bibliatik urrunduta egoan aldi haretan, harritzekoa da Aita Prai Bartolomek Liburu Santuak - bai Itun Zaharra eta bai Barria- hain sarritan aitatzea. Beste horrenbeste esan geinke Eliz-Gurasoakandik hartutako testoak dirala-ta. Itun Zaharretik, Profetak, Salmoak, Jakituria liburuak, Exodo eta Deuteronomio dira gehien aitatzen dituan liburuak. Itun Barritik, Ebanjelioak eta San Pauloren idazkiak. Gehien aitatzen dituan Eliz-Gurasoak eta Eliz-Irakasleak? San Agustin, San Juan Krisostomo, Akinoko Santo Tomas...; gitxiagotan, baina hainbat aldiz honeek ere, San Gregorio, San Jeronimo, San Anbrosio, San Bernardo, San Buenaventura...

**Icasiqizunac** eta **Erromako Katezismoa** alkarren ondoan jarri ezkeru, argi ikusten da Prai Bartolomek sarritan aitatzen dituala Katezismuak aitatzen ez dituan Liburu Santuetako eta Eliz-Gurasoen zatiak; eta, beste askotan, han aitatzen diranak berak alde batera izten dituala. Nondik hartu zituan, orduan, testu horreek? Aldi haretan ezagutzen zan "lorategi" ren batetik, hala beren-berez Bibliara eta Eliz-Idazleen liburuetara, hau da, iturrietara zuzen joanda? Ez dakigu. Biblia eta Eliz-Gurasoen liburuen ondoan, beste idazle batzuen idazkiak ere aitatzen ditu: Pouget, Marchant, Bourdaloue, Looner... Guzti honek agertzen deusku gure Aita Bartolome eliz jakintzan ondo prestatuta eta orniduta egoala.

Sakramentuei buruzko ikasikizunetan, Elizearen Liturgia zer dan azaltzen ahalegintzen da; "rito" edo ohikune bakotxaren



esangurea aztertzen dau eta sinismenaren eta gertakizun on baten beharrezkotasuna eskatzen ez da aspertzen. Honetan Prai Bartolomek aparteko gaurkotasuna agertzen dauala esango neuke nik.

**Icasiquizunac** ez dagoz umeentzat eginda, nagusientzat baino. Prai Bartolomek, herririk herri sermoiak egiten sarri ibili dalako edo, ondo ezagutzen ditu entzuleen psikologia, pentsakerea eta jokabideak. Eta bizi dituen egoera zehatzei fede aldetik erantzun bat emoten ahalegintzen da. Gehienetan, "teologoen" gai eta esaldi abstracto eta aituezinak alde batera itzita, herriarentzat garrantzitsuenak diran gauzak azaltzen ditu:

*"Sacramentuetan ba(da)goz gauza asko, Eleisa guizonai bacarric jagokuezanak. Oneec zubei eracusten ni cau(n)setia, alperricacuaz gainera, izango lizaateque azartu lotsa arin onecua... Cristinau piel guztiai jagocuena; guztiaic icasi biar daveena; guztiaic ondo jaquin biar daveena; ta Sacramentu Santubac errecibiduteco, edo bere ariman lecu emoteco, guztiaic biar daveena, da, Sacramentu bacocbian ta guztietan esango deusudana"*<sup>26</sup>.

eta errez aitzeko irudiak eta berbak erabiliz azaltzen ditu gainera.

Sarritan, elizgizonen hitzaldiak eta katekesiak arrisku haundi bat eukiten dabe: Teologia liburuetan ikasitakoa beste barik eliztarrei emotea, euren bizitzetara eta beharrezkotasunetara hurreratu barik. Gizakiak, adimenduna izanik, gauza guztien errezoiak jakitea nahi izaten dau; horregaitik, zer sinisten dogun eta zergaitik sinisten dogun jakitea beharrezko dogu. Horregaitik, Prai Bartolome eliztarren buruak argitzen ahaleginduko da bere **Icasiquizunetan**; baina "Sermolaria" dan aldetik, bere helbururik nagusia entzuleen bihotzak eta borondatea Jaungoikoaganatzea da, euren bizitza guztia Jaungoikoari begira jartea. Prai Bartolomek gizon emakumeen bihotzak ikutzen

<sup>26</sup> Ikusi "**Icasiquizunac... III**", 5. or.

badaki, sikologo eta pedagogo on bat lez agertzen jaku bere sermoietan.

Aita Bartolomeren katekesiai buruz beste gauza asko esan leitekez. Baina beste gauza bat azpimarratuz lan hau amaitzera noa. Trentoko Kontzilioak eta Kalahorrako Gotzainak gogoratzen deuskuen lez, eliz-gizonen egitekorik garrantzitsuenetarikoa bada euren eliztarrei fedea irakastea eta azaltzea, ez da gitxiago kristau gurasoena. Prai Bartolomek bere **Icasiqizunetan** behin eta barriro gogoratuko deutse gurasoei umeen fede heziketa arloan eurena dala beti azkenengo berbea.

Aita Bartolomeren idazlanak alderdi askotatik ikusi eta azertu leitekez eta azertzen dira esku artean daukazun liburu honetan. Nire lantxo honetan, XIX. gizaldiko Elizaren Katekesi ekintzan dauken tokia azertzen ahalegindu naz. **Icasiqizunac** hutsuna haundi bat bete eben eta ondo bete ere gainera. Elizaren historian eta bizitzan goi mailako toki bat daukela esango neuke nik.

*Jose Maria Rementeria*